

Emmanuel Kanten azken egunak

Egilea: Alfonso Sastre
Euskaratzailea: Fito Rodriguez

2001an, eta Iruñean Udako Euskal Unibertsitatea 25 urte biltzen zela ospatzeko, UEUko Filosofia Sailan Kant-i buruzko aste monografikoa antolatu zen. Horretarako, bestek beste, **Fito Rodriguez**ek Alfonso Sastrearen "Los últimos días de Emmanuel Kant" (Emmanuel Kanten azken egunak) euskeratu eta egokitu zuen. Aipatu egokitzapena Iruñeako Larraona ikastegiko antzokian izan zen estreinatua **Ramon Agirrek** Kant filosofo zaharraren papera bete zuelarik eta **Patxi Santamaria**, Elgoibarko Taupada taldea (**Joxemari Larrañaga eta Edurne Lasa**), **Teresa eta Josu Andonegi** lagun zituela. **Olatz Beobidek** zuzendu zuen eta argien diseinua **Santi Ezkurraren** esku geratu zen. Emanaldia ederra suertatu zen oso eta egilea (A.Sastre) bertan egon zen ikusle. Euskeraz, bada, behin bakarrik taularatu da A.Sastrek Th.de Quinceyk idatziriko saiakera baten gainean sortutako antzezlan hau, baina gazteleraz bide luzea egin du Madrilgo Maria Guerreron aurkeztu zutenetik Argentinarako bidea hartu zuen arte.

Fito Rodriguez



KANT-HOFFMANN:

Garrantzi handirik gabeko hamaika aforismo.

1.- XVI. mendean Bartolomé Torres Naharrok idatzi zituen komedia batzuk "a noticia", eta beste batzuk "a fantasía". Lehenengoak egiazko errealitatearen arabeko kontuak izango ziren; bigarrenak, egiazkoak izan gabe, egiazko kolorez apainduriko kontu fantastikoak, itxurazkoak. Oso pentsamendu abstraktoa da gure idazlearena. Ezinezkoa da horrelako banaketa. Antzerki-obra guztiak dira "a noticia" eta "a fantasía", biak batera.

2.- Egiazko oinarri baten gainean, hau dokumentatua nahiz bizi izana (hobe esanda, dokumentatua eta bizi izana, irakurtzen ditugun dokumentuak ere bizi izandako esperientzietatik bizi baititugu) sortzen da beti irudimenezko eta alegiazko garapen bat.

3.-"Dokumentu-antzerkia" deitua izan zena irudimenaren funtzioa errealitateetik hartutako gaien antolaketara murrizteko ahalegin itzela izan zen. Filosofia horren arabera ikuskizun onak egin ziren, baina hura ez zen bide ona, artearen berezkoa den arloa, irudimenarena, hain zuzen ere, bertan behera uzten zuelako.

4.-Alegia "tragediaren printzipioa eta arima" den aldetikako apustu handia utzi zigun Aristotelesek. Gure garaian, Brecht-ek, ustezko antiaristotelikoak, "ikuskizunaren bihotza" den alegian oinarritu zuen bere antzerkia. Hauxe da, nire ustez, bide egokia! Idazten dugunok (eta oholtzaren gainean antzerkia egiten dutenak) baikara....istorio-kontalariak!

5.-Stevenson-ek esana da bera istorio-kontalari bat besterik ez zela. Geu ere horixe bera -ez gehiago, ez gutxiago - gara.

6.-"Kant-Hoffmann" izendatu dugu gure ikuskizunaren izenburu luzea laburtzearren. Eta haxe da, orain, gure galdera: "Kant-Hoffmann" antzerki-obra "a noticia" ote, edo "a fantasía"? Aukera ezin hobea dugu 1.an azaldutako gure tesia argitzeko, beste zenbaitetan ez baita horren garbi izaten, baina oraingo honetan, ezin argiago: "A noticia", "Kant-Hoffmann" obrak historia kliniko baten egia, xehetasuna eta ñabardura dituelako (zentzu honetan, dokumento-antzerkiaren adibide baten aurrean geundeke); eta "a fantasía", historia osagai majikoz beteta dagoelako, hauek asmakizun batetik hartuta: E.T.A. Hoffmann ustezko drama-idazlea izatea.

7.-Jovellanos-ek esaten zuen antzerki-obra orok alderdi poetikoa eta alderdi politikoa dituela. Horrek egiazkoa dirudi. Beti pentsatu izan dut hori eta orain ez dut besterik pentsatuko. Baina, batzuetan, alderdi politikoa bigarren mailako erreferentzien planoan geratzen da, kasu honetan bezalaxe, eta aurretikako beste zenbaitetan; esaterako, 1957an María Guerrero antzokian estreinatu zen "El cuervo" obran.

8.- Batzuetan bizitzaren alderdi praktikoak nagusitzen zaizkio alderdi agonikoei, nik biei heltzeko ahaleginak egin baditut ere; hortaz, "politikoagoa" den nire antzerkiak -esaterako "El camarada oscuro", "Análisis de un comando" edo "Los hombres y sus sombras" (denak estreinatu gabeak) - azaltzen du, eta indarrez azaldu ere, alderdi agonikoa.

9.-Gure obra ez da Kant-en pentsamenduari buruzkoa, haren zahartzaroari eta heriotzari buruzkoa baizik. Alabaina, haren pentsamenduaren gaurkotasuna aldarrikatu behar dugu. Ez gara inor apriorizko judizio sintetikoen azterketa egiteko, baina haren dogmatismoaren eta eszeptizismoaren kontrako jarrera bikoitza eskertzekoa izan da giza-pentsamendurako. Edo benetazko pakerako baldintzen azalpena. Edo koloniak askatzeko haren begikotasuna. Eta, zer esanik ez, giza-fenomenoaren historiaren aurrean zuen baikortasuna: pentsamendu atzerakoiari erronka luzatu zion iraultza frantziarraren aldeko apustua eginez, honek sorturiko gogo handiari eutsiz, ondorioak edozein zirelarik ere....Hura idaztean, portatu egin zen Kant!

10.-"Unheimlich" - arrotza - delako nozio poetikoa eta estetikoa gogo aurrean izan da bai drama hau idatzi bitartean - 1984 eta 1985 urteetan -, baita Josefina Molinak kemenez eta sentimen delikatuz zuzenduriko antzerki-lanean ere. Aipatu nozioa Freudek maisutasunez azaldu zuen Hoffmann-en "Harea Gizona" obraren azterketan, hau pintura metafisiko italiarraren ardatz bat izan zelarik eta, orain, gurea.

11.- Arrotza ezagun eta ezaguna arrotz azaltzen zaigu! Egia esan, ez ote da beti horrela izan arterik onenean eta literaturarik onenean?

EMMANUEL KANTEN AZKEN EGUNAK

ALFONSO SASTRE

Hitzaurrea

Gizon bitxi bat argizatua . Bere irudia ezaguna egiten zaigu lekukotasun ikonografiko batzuen arabera, Ernest Teodoro Amadeo Hoffmann dugu, nahiz eta ikus-entzulegoak bera denik jakiteko inolako arrazoirik ez eduki. Aipatu gizona pontxe edaria ari da prestatzen . Pontxeak, jakina denez bost osagarri ditu (pontxa, persieraz bost adierazi nahi baitu) : ura, zitroia, tea, azukerea eta rona. Rona botatzean, hain zuzen, bere aurpegia poztasunaz pizten da eta, agian, behar baino gehixiago botatzen dio nahasketari. Azkenik, edari majikoa egina geratzen da. Urrats bat ematen du atzera eta egindakoa begizatzen du doinu ezagun hau entzuten hasten den bitartean: Offenbachen Hoffmannen ipuinak, alegia. Une hartan pospolua pizten du eta pontxea piztu. Benetazko sorgiñak egingo lukeenaren antzera piztutako garra hazten da argitsu bezain koloreztatua. Hoffmann mahaian esertzen da eta aipatu garrak argiztaturik bere kaierrean hasten da idazten. Hau entzuten da:

Hoffmannek: Barkatu, adierazi behar dizuedana, agian, ez da beharrezkoa izango, baina Ernesto Teodoro Amadeo Hoffmann dut izena eta alemandar literaturan ezaguna bezain mirestua nauzue. Bilatu nahi izanez gero Erromantizismoaren atalan aurkituko nauzue. Musika, antzerkia, eta ipuin fantastikoak dira nire bizitzaren muina, nolabait esatearren eta oraingo honetan Emmanuel Kant filosofoari buruz ari naiz idazten. Oso garrantzitsua den pertsona; Honezkero bi bagara behintzat ; (Parrez). Beraz, Kanti ezker, Königsberg hiriak badu eduki bere tokia kulturaren historian. Nik ez nuen ezagutzerik izan baina gogoan dut bere elizkizunak hiria nola astoratu zuen. Gogoratzen dut, era berean, nere izeba Margarita negar zotinean ibili zela Kant hilik ikusi zuenean. Txoritxo bat ematen zuela zioen. Bueno,..

Antzerki honen haria Emmanuel Kantek Königsberg duen etxean suertatzen da. Etxe handia, iluna eta doia dugu. Bazter guztietan beste garai batzuetako jendeen mamuak azalduko direla ematen du. 1804ko urtarrilaren azken egunak dira eta kanpotik etorritako edonor beldur legoke hara sartzean, hori dela eta atzera begiratzeko gogoz ibiliko da edozein, herioaren aingerua bertan egongo balitz bezala, bere mehatxuak eta guzti.

1804KO URTARRILAREN 27A HERIOTZA BAINO 16 EGUN LEHENAGO.

Königsbergen dagoen Emmanuel Kanten etxeko gela ilun batean. Altzari barrokoak, egurrezkoak eta belztuak. Izan ere gela honetako zenbait tokitara ez da argirik iristen, ez eguzkirik, ez eta beste argi motarik ere. Bertan bizitza luze osoan jasotako gauzak pilatzen joan izan dira eta orain itxas hondoratze batean azalduriko gauzak dirudite egunerokotasunaren etengabeko errepikapena dela medio. Etxez kanpo eguraldi kaskarra egiten du eta gelako tximinian enbor batzuk ari dira sutan desegiten, bizitza eta erosotasunaren seinale. Hala ere iluntasuna da nagusi eta argiak aulkian eserita dagoen agure ahula argizatzen du (Kant hain zuzen). Bere aurrean mahia eta, mahaiaren gainean idaztekoa. Idatz tresna gordetzeko dagoen kutxa ari da Kant irekitzen eta isten erritmo desberdinen arabera, zer gorde nahi izango ote duen oso argi izango ez balu bezala. Zerbait ongi egin nahi omen du baina ez du lortzen eta honek asaldatu eta nahigabetu egiten du gizona. Hori guztia konpondu nahian edo hasten da tintontzia ere irekitzen eta isten eta, gero alkandoraren botoiak lotzen eta deslotzen...joku honek luze joko du eta azkenean Kant, erabat ahiturik mahai gainean erortzen da. Une honetan hasten da eszenatokia ikusten. Bertan, bi pertsona daude. Wasianski doktorea, bere epeltasunari dagokion moduan eserita, eta emakumezko bat ,kanpotik etorria, nonbait, eta zutik dagoena. Jarrera tenkatua dute biek. Eserita dagoenak agintea omen du eta horrela daude gauzak elkarrizketa hasten denean :

Wasianski:Nola duzu izena?

Teresa: Teresa Kauffmann

Wasianski: Egia da. Paperetan daukat zure izena. Anderea ala andereñorik.

Teresa: (Modu latzean). Zer esan nahi duzu?

Wasianski: Barkatu. Ea ezkondurik ote zauden jakin nahi nuen. Enplegurako, hain zuzen.

Teresa: Alarguna naiz.

Wasianski.: Zure senarra hil al zen?

Teresa : Bistan da

Wasianski: Barkatu. Galdetu nahi nizun, alegia, duela asko ote den zure senarra hil zela, egia esanda ez dit axola holakoak baina interesgarria da beti norbait kontratupean zerbitzurako hartzeko izaten denean. Kant irakaslea, (bere ikasle zintzoa izateaz gain bere laguna nauzu) beharrean dago bere bizitzaren bukaera honetan, eta horregatik zuhurak gara bere ingurukoak hura zaintzeko hartuko ditugun pertsonak ezagutzerakoan.

Teresa: Orduan zuek jakingo duzue.

Wasianski: (Itxura egiten): Zer diozu anderea?

Teresa: Beno, nik hipokresiari gorroto diot, Wasianski ...doktorea.

Wasianski: Euria ari du, ez al duzu entzuten? Etxe honetan, (horren da zaharra)... kanpoan gertatzen dena. - nola esango genuke?- indarra handiz antzematen dela etxe barruan.

Teresa: Egia da, euria ari du, gogor aritu ere duela gutxienez... bi egunetik hona, ez al da horrela? Eta haizea...!!!

Wasiasnki: Utzi pakean haizea oraingoz!!!

Teresa: Haizeak? Zure elkarrizketari segida emateko besterik, ez zen eta

Wasianski: Zure senarra nola zendu zen horretaz hitz egin dezaket'...

Teresa: Nik hil nuela esan zuten zuk, honezkero jakingo duzunez...

Wasianski: Hala eta guztiz ere Kant irakasleak ba ditu zutaz erreferentzi onak eta, beraz, zu kontratatzeko baimenduta nago.

Teresa : Bai, lau urte terdi kartzelatuta egon naizen espetxeko zuzendariaren informe onak dauzkat. Erljio kontua da, azkenean.

Wasiasnki: Erljio kontua diozu?

Teresa: Bai, izan ere nere senarra galtzagorria zen

Wasianski: Galtzagorriren bat

Teresa: Ez, deabrua bera. Nire etxea infernua zen

Wasianski: Zer esan nahi duzu?

Teresa: Esanahi teologikoz diot

Wasianski: (Burua astintzen egoerak erabat gainditurik) Beno, utzi hori, horrela ez goaz inora. Geroztik zure jarrera onuragarria izan da oso guk eskuratu ditugun informazioen arabera.

Teresa: Beti izan da nire jarrera orain bezain onuragarria eta zaharren trataeran esperientzia dut, bai zahartzaroan baita heriotzara doazen prozedura naturalen aurrean ere. Soinaren heriotzaz ari naiz, jakina, arimaren mundua beste gauza bat da, baina horretan ere murgilduta nago eta gainera....

Wasianski: Ja, ja, ja,

Teresa: (Jarrera latzez). Zer du horrenbeste graziarik?

Wasianski: (Serioa) Barkatu, arimaren munduan murgilduta zaudela eta (berriro hasten da parrez tonto baten moduan), ja, ja, ja.

Teresa: (Lehor) Ergel baten itxura osoa duzu zuk. Zure adinerako ez nuke esango horren akabatuta egon behar zinatekeenik. (Serio moztu dio eta Wasianski kontuz ibili

beharra dagoela hasia da konturatzen) Luterok fundaturiko elizaren sazerdote izateak lagun urkoarekiko errespetua eduki zenezakeela pentsatzekoa zen baina...

Wasianski: (Kopetilun) Zuk informe oso onak dituzu (bere mahi gainean dauden paperak hasten da biltzen) Horren dira onak...Aizu; Kaufmann anderea, zure aurrean daukazuna hiri honetako Kultur Sailako doktorrea duzu eta hala ere heriotzarekin nahasturik eta kartzelaturuta egon den pertsona batekin biltzeko ahaleginak egin ditut...

Teresa: (Entzun berri duena gehiegi da berarentzat) Nola esan duzu? Heriotzarekin nahastua? Kartzelaturtua? (Izua sortzen duen ahotsez) Zer esan nahi duzu zuk horrekin?

Wasianski: (Beldurtuta) Hau izugarria da. Isil zaitez arren;

Teresa: (Serio oso) Txantxa esperimentalak besterik ez zen. Izan ere psikologia garaikidean metodologia berriak ari dira esperimentatzen. Egungo errealitatearekin lotura gehiago duten metodoak, alegia

Wasianski: (Adimentsuarena eginez) Noski; ulertzen dut (berriro ere bere mahiko paperak biltzeari ekiten dio disimuluan) Bueno, arazo teknikoa, horrela deituz badago ere eta zehazkiago zuri buruz aritzerakoan eta Kant irakasleak pairatzen duen egoeraz...

Teresa: Zenbat urte ditu zehazki?

Wasianski: Apirilan, jaungoikoa lagun, 80 urte beteko ditu, nahikotxo garai honetarako nahiz eta beste aroetan

horrenbeste ez izan; gogoratu bestela Noek, Sem, Kam eta Jafet semeak bostehun urte zeuzkala sortu zituela eta Eurite Izugarritzko garaian zazpirehun urte zituela.

Teresa: Diozuna egia da. Bibliak dionaren arabera gizakiaren adina joan da gutxitzen azken mila urte hauetan (kanpoan euriak gogor jotzen du. Haizea gero eta nabarmenagoa da, beldurrezko ipuinen antzera)
Kant deituriko honen azken egunak zaintzeko kontratatuko nauzula pentsatu behar dut?

Wasianski: (Asaldatuta) Ezin da Kanti buruz horrela mintzatu zeren Kant irakasle haundiari buruz ari zaren. Ba al dakizu zerorrek zein den Kant? Nola esan daiteke Kant “deituriko” baten zaintza?

Teresa: Ez al da beraren deitura?

Wasianski: Baina Kant askoz gehiago da anderea

Teresa: Berari buruz aditu dut hirian zerbait, beti ere errespeto handiz... uste dut

Wasianski: Filosofiaren historia bi zatitan etenda dago. Kant aurretik eta bera eta gero.

Teresa: (Indiferentziaz) Hori guztia oso ondo iruditzen zait, baina agure zaharra baldin bada horrek dakartzkien arazoekin, ene aburuz laguntza interesgarria eman nezakeelakoan nago. Horrezaz gain, musikari buruz zerbait esan nahi nizuke

Wasianski: Musikari buruz zer?

Teresa: Biolina jotzen dut eta ilunabarrean batik bat oso premiazkoa suertatzen zait hura.

Wasianski: Jaungoikoa; etxe hau infernu bihurtu zaigu azken bolada honetan

Teresa: Nire biolinak ez du ezer ikustekorik infernuarekin (haizea eta euria) Ze negu gorria... Udaberriaren zain egon behar dugu gero

Wasianski: Kant irakasleari buruz aritzean honako hau adierazi beharko nizuke. Lur jota dago eta hori dela eta ezagutzen ez dutenentzat adimen ahuleziaz irauten duela dirudi, hauxe esatea gehiegi esatea bada ere

Teresa: (Serioa) Zuk nahi duzuna esan, baina ni ez naiz azalean geratzen diren horietako bat, eta gainera magnetismo dohaiak dauzkadanez, berak dauzkan minak arindu ditzaket.

Wasianski: Bueno, irakaslearen gaixotasun bakarra zahartzaroa delakoan nago.

Teresa: Zahartzaro guztiak ez dira berdin

Wasianski: Bere argitasuna itzaltzen ari da duela hilabete batzuetatik hona, baina bera sufritzen ari da laurogeita hirutik edo... hau da, badira hogeit bat urte gutxienez osasun arazoak dituela.

Teresa: Ulertu dut. Segi ba.

Wasianski: (Bere paperei begira) Ohar hau duela bost urtekoa da. Ikusi? 1799. Irakasleak zioen: “zahartu naiz, ahulduta eta adimen gabetua nago...haur bat banintz bezala hartu behar nauzue zuek” Hemen daukat duela urte beteko beste idazkia, mende honen hasierakoa: “ni neroni zama naiz” “nire baitan agure nekatua besterik ez duzue antzemango” Gogoan dut irakasleak “abiatu” nahi zuela 1803ko apirilan, iaz, Kanten urtemuga zen...hurrengo urtea betetzera iritsiko ote deneko esperantza ez dugu galdu nahi...

Teresa: Horren da latza bere egoera?

Wasianski: Oso gaizki dago Kauffmann anderea. Gertukoenak ere arrotzat hartzen gaitu. Bolada batean bere arrebak atenditu du.

Teresa: Eta?

Wasianski: Irakaslearen atzean jarri behar zen, ixilik, Kantek bera zela ez antzemateko.

Teresa: Galdera bat egin dezaket? (gelaren horma ilunei begira) Ez duzue irakaslea inoiz hemendik ateratzen?

Wasianski: Berak ez du nahi honezkero... Irten zen azken aldiz iazko abuztuan izan zen. “Irten, irten” nahi zuen. Itxaroten minutuek orduak ematen zituzten.. “Kanpora, kanpora” zioen pazientzia erabat galdurik, “kanpora irten nahi dut, urrutira;”. Horrela zioen baina hiritik atera bezain laister urrutiegi izan omen zen berarentzat eta eskatu zuen: “itzuli, itzuli”.

Teresa: Zerbait gehiago?

Wasianski: Irakasleak ez du ikusten ezkerreko begiaz.

Teresa: Begi bakarra dela diozu beraz?
(Wasianskiri ez omen zaio gustatzen horrela adieraztea)

Wasianski: Orain, berriz, eskubiko begiak ahalmen handia ere galdu du.

Teresa: Beraz, ia itsuturik al dago?

Wasianski: Ez horrenbeste, baina bere morroi zaharra nirekin nahasten hasi da.

Teresa: Ya,ya.

Wasianski: Otorduetan, goilara mahian aurkitzea gero eta gehiago kostatzen zaio (hau esatean sentiberatzen da) Entzumenaren aldetik, gainera, ezkerretik aspaldidanik ez duela ezer aditzen , orain eskubikoak ez du ongi entzuten.

Teresa: Beraz, ozenki mintzatu behar zaio.

Wasianski: Eta eskubitik, ez ahaztu;

Teresa: (Oso ozenki) Ez dut ahaztuko; ; ;

Wasianski: Eta orain, zergatik ohiuka?

Teresa: Barkatu, Kant jauna nuen gogoan (oraingo honetan oso suabe, suabegi, hitz egiten du. Ez da entzuten ia esaten duena). Bizitzaren ziklo honetan lo egiteko arazoak sortzen dira. Kasu honetan horrela al da? (Orain ari da idazten, oso zintzo, kaiertxo batetan).

Wasianski: Irakasleak amets gaiztoak ditu eta aspaldian hil ziren bere gurasoak ikusten ditu...pasatutako garaiei dien izua azalarazten da bere gau tristeetan eta...

Teresa: (Arrausika) Aski da. Honek emango du bestela antzerki bat non hasieran aurrekariak agertu egiten diren ikusentzulegoak haria behar bezala segi dezan.

Wasianski: Horixe da , hain zuzen ere.

(Bi irudiak galtzen joaten dira iluntzen den bitartean)

1804Kko OTSAILAREN 4an

HERIOTZA BAINO ZORTZI EGUN LEHENAGO

Aurretik aipatutako gela ilunean gaude baina gaur udaberriko eguna da. Eguzkiak jotzen du arbolak kimatzen (txoriak kantari, nonbait) eta lehioaz beste aldean gure filosofo haundiak idazten du. Begiak paperetik gertu eta luma tintontzian bustitzeko nekez dabil. Kant hotzak dago. Arropa gehiagorekin berotu nahi du baina ez du ezer aurkitzen. Dardarka dago. Teresa sartzen da biolina eskuan. Kantek, Teresa begi aurrean edukita ere, ez du haintzakotzat hartzen. Honek eskua pasarazten du bere begien aurrean baina Kant ez da konturatzen. Teresaren hasperenak bere poztasunaren berri ematen digu. Hau da, aurkitu omen du biolina jotzeko tokia. Kantek ez du ezer aditzen, ez du ikusten ere. Teresak biolina jotzen duen bitartean ez du erreparatzen Kanten hotzikaraz... azkenean konturatzen den arte. Biolina uzten du eta Kant begiratzen du, begirunez.

Teresa: Hotzak zaude? Baina beroa egiten du. Bueno, ez asaldatu. Hotzak akaturik zaude?... Itxoin (berokia hartzen du eta Kant estali aurra balitz bezala). Badakit: beti hotzaz ibili zara, eta bide batez, beti izan duzu gustoko horrelako berokia (eztiki) ezin nauzu entzun, irakasle jauna, izan ere bizitzaz beste aldean zaude jadanik...(Kanten begirada galdua dagoen)... beste aldean zaude, non arropa guztia soberan dago... (arropa gainean jartzen dio eta Kant, ia lotan, pozik, azaltzen da. Irribarre egiten du, ametsetan balitz bezala...) Zer? Musika pixka bat? (biolina erakusten dio). Badakit. Martxa militarrik besterik ez duzula gustuko...Frantziako iraultzaren aldeko zure jarreragatik izango da, ez da? (Mahaiatik liburutxo

bat hartzen du eta honako irakurketa hasten da):
“Honelako fenomeno ez da inoiz ahaztuko historian. Izan ere, hau bezalako gizartea hobetzeko gaitasunik ez da inoiz hantzemana izan ez eta hona iristeko eman ziren urratsak abian jarri aurretik ere...” “Baina iraultzak nahi zuena lortu ez balu ere, nahiz eta porrot egin, gauza guztiak aurreko egoerara itzuli arren, filosofiaren aurreikuspen honek ez du bere indarrik galduko. Gertatutakoa haundiegia litzateke beti ere...” Horrela mintzatzen zara frantziar terroreari buruz, irakasle jauna?

(Kantek begirada galdua du oraindik. Ez du ematen arrazoimenaren ordezkaria, Teresak nahiko lukeen gisan, bestalde. Aitzitik, laguntza behar duela antzematen da eta zerbait dio).

Kant: Kafea, kafe pixka bat, mesedez...;

Wasianski: Kafe pittin bat, jakina, irakasle. Eguraldi ederra egiten du , irakasle.

Kant: Bai, bai, ateri du , azkenean.

Wasianski: (Irakasleak bota berri duen esaldi okerra zuzentzera ez da ausartzen eta errepikatu egiten du). Bai, bai, ez da euririk... holaxe da.

Kant: Oraindik hotz, hotz haundia.

Wasianski: Horrenbeste hotz, irakasle?

Kant: (Ia parrez) Hotza

Wasianski: Beti gustatu izan zaizu bero bero agotea eh, irakasle?

Kant: Hipotermia (barrez)

Wasianski: Hankak estali diezaizkiozue?. Ondo al zaude?

Teresa: Berdin dio (Kant berotzen du baina irakaslea oso urduri dago. Wasianskiri:) zer gertatzen zaio orain?

Wasianski: Kafearen zai dago.

Teresa: Ya.

Wasianski: Txantxangorriaren zai ere dago .

Teresa: Txori bat?

Wasianski: Urtero etortzen da leiho honetara eta berandutzen denean irakaslea gaixotu egiten da. Aurten, berriz, txantxangorria datorrenean, irakaslea ez da hemen egongo, bere mamua ibiliko da bakarrik gelaz gela.

Teresa: Zer diozu? Nire ustetan hobe antzezlan honi melodramaren itxura ez ematea, melodrama txar baten itxura behintzat.

Wasianski: (Pentsakor) Ahalegindu gaitezen, bada, seguru baita gu idatzi gaituenak kritika arrakastaren bat eskuratzeko egin duela .

Teresa: Ez dakit horri garrantzia emango dion egileak baina (hausnartuz)... gure duintasunagatik, bederen;

Wasianski: (Onartu egiten du Teresak esandakoa) Ados, badakit. Bururatzen zaigun modu hobereanean jarrai dezagun...Nola gindoazen?

Teresa: “Irakaslea ez da hemen egongo”. Baina orain ez esan mamuarena, arren.

Wasianski: Aurten txantxangorria etortzen denean, irakaslea ez da hemen egongo.

Teresa: (Isilunearen ondoren). Kant irakasleaz txoriekin horren gozua izatea esan duzun hori polita da.

Wasianski: Egia baita (Mindu xamarra). Ez pentsa melodrama egiteagatik esaten nuenik.

Teresa: Mesedez, ez segi;

Wasianski: Txantxangorriaren txioka atzeratzen zenean Kant irakasleak zioen: “Zer gertatzen da aurten? Zergatik ez dabil txantxangorria? Orduan adimen osoaren jabea zen eta, oker ez banago, “Ebazpenaren kritika” ari zen idazten, edo agian...

Teresa: Idazten ari zena berdin du

Wasianski: (Asaldatuta). Orain ez gaude aipatutako tenorean... Tenore hartan ; irakaslea beste bat zen tenore hartan...Bizitza ere ederra zen... Tenore hartan. Dena

desberdina zen aipatu tenorean... eta orain Kant irakasleari begira, bere bizitzaren ederrena ere hilik dagoela honezkero. Bai, hilda, zeren beraren lagun hoberenak, berarekin hementxe bertan biltzen zirenak hilik daude; eta irakasleak bere bizitzaren kanposantuan irauten du...Orduko enara edo txantxangorriaren esperoan.

Kant: (Eskale baten moduan) Eta kafea? Zer gertatzen da kafearekin? (Orain agertzen da Hanna, zerbitzari mekanikoaren gisa. Kafeak ekartzen ditu. Usaimenak, Kantek, dagoeneko, ez du beste zentzubiderik, adierazten dio Kanti kafea ekarri dutela. Kant berpizten da eta itsaso marinela egingo lukeen bezala dio:) Lurra, lurra;

(Teresa eta Wasianskiren artean elkar ulertzearen begirada gurutzatzen da. Teresak kafea zerbitzitzen du eta Kantek, berriz, gogo haundiz hartzen du. Hanna, Teresa eta Wasianski, bestalde, beren katiluak hartzen dituzte eta hasten dira hizketan haien artean).

Wasianski: Kafea oso edari atsegina da, ez da?

Hanna: Niri ronarekin batera nahastea gustatzen zait. “Ahate gorria” tabernan jende askok hartzen du horrela.

Teresa: Baina zer diozu, ronarekin?

Wasianski: Hanna maitea, bizitzan “Ahate gorria” baino garrantzitsuagoak diren beste gauza batzuk daude.

Hanna: (Gorritzen). Barkatu, irakaslea. Ni neskame ezjakina nauzu.

Wasianski: (Kafea hartzen). “Ahate gorria”; Mundu bitxia izango da seguru asko ez da? (Kantengana hurbilduz). Ez zaio katilua erori. Hobeto dago. (Hirurok begiratzen dute jakinminez) Txango bat egin nahi izango du, laister.

Teresa: (Barra gaiztoarekin). Txangoren bat diozu?

Wasianski: Kafeak urrutiko herrietara bidaiatzera bultzatzen du, edo hala esaten du behintzat.

Teresa: (Betaurrekoarekin ikustatzen). Uste dut hamasei ordu t´erdi egiten duela lo egunero, gutxi gora behera (bere erlojuari begira). Ez dakit hau guztiz zuzena den.

Hanna: Gure osabak oso lo gutxi egiten zuen lehenago.

Wasianski: (Hannarekin pozaren pozez). Oso gutxi egiten zuen lehenago. Ah; kafea bukatu du (benetan gertatu dena da Kanti katilua erori zaiola) Ez da ezer, irakaslea. (Kantek begiratzen du ezer antzeman gabe). Nahi duzu atsedetik hartu edo txangoren bat egin?, esaidazu. Urrutiko herrietara agian?

Kant: Bai, urrutiko herrietara. Bavierara edo Espainiara edo Portugalera (oso ahots mehearekin, baina Teresak, gertutik, entzun eta aditu dio).

Teresa: (Wasianskiri): Malenkolirik al da? Norabaitera itzuli nahi du?

Wasianski: Ez. Irakaslea ez zen inoiz inon egon. Bueno, esan nahi dut hiri honetatik ez zela inoiz irten. Ametsak

dira...Izan zitekeena eta gauzatu ez zena, edo halako zerbait... Granada, Bartzelona dio inoiz. Hiri haiek non dauden ere ez du jakingo dagoeneko. Hil aurretik bere bizitzan ikusi ez duena ikusi nahi izango balu bezala da, ametsa bezala. (Kanti) zer? bagoaz?. (Kantek baietz dio). Prest al zaude? (Kant baiezkara eta urduri). Itsasontzi oso polita da, oso polita da, ez al da hola? (Kant baiezkara) Zer dira argi haiek? (Kant zerbait begiratzen saiatzen da), Bai, Kopenhagera ari gara iristen...

Kant: (Oso pozik). Kopenhage, Kopenhage;;
(Berehala nekatzen da eta marmarka hasten da)

Teresa: Zer dio?

Wasianski: Itzuli, itzuli, ari da esaten.

Teresa: (Indiferentziaz). Ba etorri, etorri...(Kant lokartzen duela ematen du).

Wasianski: Gaizki dagoela uste duzu?. (Teresari begira)
Asmatutako bidai haiek kaltegarriak direla uste duzu?

Teresa: Hurrengo egunetan erantzungo dizut. (Kanten mesanotxetik kaiertxo bat hartzen du. Kant lotan dago. Begiratzen du.)

Wasianski: Idazten egon al da?

Teresa: Ulergaitza da

Wasianski: Utzi niri (Kaierra hartzen du eta hasten da irakurtzen). Bere memoranduma da. Oharrak, burutazioak eta abar, azken egun hauetan idazten ari dena.

Teresa: (Seinalatuz). Zer jartzen du hemen?

Wasianski: (Irakurtzen) “Udako hilabeteak ekaina? uztaila eta abustua dira”

Teresa: Hori gogoratu nahi al du?

Wasianski: “Iluntasunari atxekitzen zaion izuaren aurrean ez makurtu”

Teresa: Hori da guztia?

Wasianski: Ez (Barrez irakurtzen). “Nire morroi zaharraz ahaztutzeaz gogoratu behar dut”.

Teresa: (Barrez ere bai). Ahaztutzeaz gogoratzea... ene jainkoa;

Hanna: (Pertsiana jeisten du eta dena iluntzen da). Orain atsedena hartzeko aukera izango du. Lasaitu da.

Wasianski: Oso ongi, Hanna. Kauffmann anderea, zatoz sukaldera nirekin. Izan ere elikaduraren arazoa korapilatzen ari da. Ez du ezer jan nahi. Etorri mesedez;

(Biak doaz. Hanna bertan geratzen da eta Kanten aurpegiak ametsetan dagoela adierazten du. Karraxi egiten du.)

Kant: Oh ez, oh ez; (Hannak hasi duen mugimendu mekanikoa gerarazi nahi duela ematen du. Dantzatxo bat eginez musika kutxa batera doa eta bertan sartu eta estalia itxi. Entzuten zen musika bertan behera geratzen da. Kant jaikitzen da, nekez, eta kutxara doa) Hannita, Hannita;

(Urratsa ematean buruz behera erortzen da. Ez du altxatzeko ahaleginik egiten. Indarge dago baina barrez, egoera dibertigarri batean balitz bezala. Iluntasuna gero eta nabarmenagoa da eta Kanten ahotsa entzuten da: “Ez dakit non nagoen; irla bakarti batean banengo bezain zapaldurik sentitzen naiz eta etxera itzuli nahi nuke. Ogia, gurinarekin bustia, asko gustatzen zait, baita gazta ere. Hala eta guztiz ere, ez dit inork ematen gaztarik, ez da ogia gurinarekin ere...”).

1804ko OTSAILAREN 5a.

HERIOTZA BAINO ASTE BAT LEHENAGO

(Egongelan. Eguerdian. Kant eserita dago, baina bere aulkiari lotu dute ez erortzearren- edo ez jaikitzeke, behar bada-. Sudurrari odola dario eta mukizapi zuria ari da gorritzen. Wasianski Peter Schneider izeneko gazte batekin sartzen da , odolaz konturatzen da eta garbitzea doa).

Wasiasnki: Zer gertatzen zaizu? Barkaidazu

Peter: Maisua, odoletan zaude; Zer egin nezakeen nik?

Wasianski: Peter, ekarri ura eta garbitzeko zapia, ez al duzu ikusten?

Peter: (Laguntzeko irrikitan) . Maisua, maisua; Halakotan ezagutu beharra; Nire aitapontekoak esan zidan, baina ez nekien horren grabea zenik.

Wasianski: Zer kontatu dizu gure laguna Von Hippeleek?

Peter: Kant irakasleak aurreko udaberrian esan zuela: “ Gizaki baten itzala besterik ez naiz”.

Wasianski: Eta zer iruditzen zaizu zuri orain aurrean duzula? (Peterrek pena haundiaz begiratzen du Kant)

Peter: Itzalaren itzala dela, ene aburuz. Nik berarekin elkarrizketa akademikoa burutzea nahi nuen. Beranduegi ote da horretarako?

Wasianski: Ez nuke nik horrenbeste esango. Zenbait unetan mail haundiko esakunak adierazten dizkigu (Kant hasi da mugitzen). Eh? Irakasle jauna?

Kant: (Begiak lausoturik begiratzen). Nor da?

Wasianski: Gaurko espero genuen bisita da. Peter Schneider gaztea.

Peter: (Kanten aurrean makurtzen da begirunez). Ni neroni.

Wasianski: Von Hippel lagunak hartzeko gomendatu zigun.

(Kantek, sotiltasun haundiz, etorri berria agurtu nahi du baina ezin du, aulkiari lotuta dagoelako).

Kant: (Beldurtuta). Ezin naiz jeiki

Wasianski: Ez arduratu, irakasle

Kant: Bisitariari agurtzea oinarrizko giza legea da. Lotuta nago, laguntza*;*

Wasianski: Ez arduratu, irakasle.

Kant: Agurtu behar dut , agurtu behar dut*;*

Wasianski: Ez arduratu, irakasle (Lasaitu nahi du eta Peterri hurbiltzeko adierazten dio). Has gaitezen gaurko saioa, Schneider jauna. Ez dut uste minutu bat baino

gehiago irauteko aukera izango dugunik. Gehienetara jota, minutu terdia.

(Peter Schneider gaztea, oso ongi jantzita, eseritzen da eta bere idazkiak hasten da ditu irakurtzen . Bitartean, Kantek atzamarra sartzen du sudurrean eta inguruan dabilen euli hegaldari begira geratzen da).

Peter: Egia esanda duela hamahiru urtetik daukadan zalantza bati buruz hitz egin nahiko nizuke. (Bere paperei begira). Bai, 1791...”arrazoi hutsaren kritika berria egitea zergatik beharrezkoa den”... Halleko Unibertsitatean irakasle ospetsua den Johann August Eberhardi zuzendua, hain zuzen...

(Hau entzun bezain laister, Kant, otso baten antzera hasten da uluka. Honek bertan dagoen jende guztia arritzen du eta ez daki inork , ez eta Wasianskik ere, horren aurrean zer egin. Azken honek dio):

Wasianski: Aipatu berri duzuna irakasleak gogorki gorrotatzen duen pertsona da. Izan ere, Eberhardek era maltzurrez erasotu zion gure irakaslearen filosofiari.

Peter: Hain zuzen horretaz hitz egin nahi nuen gure irakaslearekin. Entzuten nauzu?

Wasianski: Beste belarrian, arren, ez bazaizu importa.

Peter: (Beste belarriari zuzentzen). Entzuten nauzu, irakasle? (Kant baietzean dago begirunez). Barkaidazu Heberhard irakaslea aipatu baldin badizut... (Kant izena aditzerakoan hasten da berriro mugitzen). Gogoratuko duzunez...

(Kantek ezpainak mugitzen ditu baina Peterrek ez du ezer ulertzen eta Wasianskiri galdetzen dio: “Zer dio? Wasiasnki, espainei begira honakoa hasten da adierazten Kantentzuz:).

Wasianski: “Burua galduta daukat”. (Kantek ezpainak mugitzen ditu eta Wasianski, ordea, irakurri eta itzuli egiten du besteak esan nahi duena). “Eberhard ergel hutsa da...

Oso nekatuta nago...Labur izatea eskertuko nizuke... Wasianski doktoreak lagunduko nau erantzuten... Eskerrik asko berriro ere Wasianski maitea.” (Kanti, ukitua). Ez horregatik, irakaslea maitea. (Peterri). Esan nahi duzuna.

Peter: Egia al da Eberhard jaunak kantiar gogamenaren aurkako eragozpenak Kantiar gogomenatik bertatik ateratzen saiatu zela?

(Kantek begiratzen du ahoa bete hortz. Eskua altxatzen du laguntza bila edo; Ez du ematen ezer ulertu duenik. Wasianski laguntzera dator).

Wasianski: (Peterri) Kant maisuak dioenez, gauzak bere baitan, ez dira espazioan bilatu behar; (Kantek baietz dio, pozik, eta Wasianski esaten ari dena azpimarratzen du keinuz, bera hizketan balego bezala). Ezta denboran ere; ...fenomenoetatik harago dagoen hartan baizik, hau da, numeroetan. Eberhard jaunak kontrakoa frogatu nahi zuen baina ez zuen aitortzen. (Kant berpiztu da eta Wasianskik dioena, sinkronian, baieztatzen ari da. Baina, bapatean,

geratu eta zurbildu egin da. Bere sudurrari, berriro ere, odola dario). Jainkoa; Odolustu egingo zaigu;

Gaztelerazko “El Público”n argitaratutako bertsiotan azalpenak luzexeago jotzen du honela dio:

Wasianski: El Profesor Kant sostenía con claridad que estos fundamentos objetivos, es decir, las cosas en sí, no deben buscarse en el espacio... ni en el tiempo, sino en aquéllo que la crítica llama el sustrato extra o suprasensible de los mismos... el número...

Peter: (Oso seguru eta eragile). Larrialdi hau atenditzen utziko nauzu?

Wasianski: Kaufmann andereak medikuntza badaki. Abisatuko dut.

Peter: Zure aurrean daukazuna ez da teologia ikaslea soilik . (Wasiankik Kanten sudurra estaltzen du mukizapi batekin eta Peter begiratzen du). Medikuntzan doktorea ere ba nauzu.

Wasianski: Jainkoarren. Trummer doktorea Königsbergtik kanpo dago aste hauetan... Hasteko sudur honena konpondu zenezake?

Peter: (Zakuto batetik tresna batzuk ateratzen ditu eta sudurraren odol jarioari ekiten dio bera errusiar sendagilea dela adierazten duen bitartean). Nire benetako izena Demetrio Gogol da gure etxean Mitia deitzen didate- eta sendagile errusiarra naiz.

Wasianski: Honek eleberria ematen du.

Peter: Tartaroaren infernu sakonera joan baino lehenago, hil aurretik, hain zuzen, Kant ikusi nahi nuen, asko miresten baitut filosofo gisa.

Wasianski: Poeta bezala ari zara mintzatzen baina oso portaera maltzurra eduki duzu irakaslearen lagun baten bidez hona etortzean. Gainera, Von Hippel kontseilariaren oharra falsifikatu duzula ematen du.

Peter: “Mea culpa”. Kartzeletan ordainduko dut egindakoa, baina ez naiz damutuko. Kant hil aurretik ari naiz ikusten eta, gutxi balitz, bere sudurra ari naiz sendatzen. Nork esango zidan egunen batetan Kant irakaslearen sudurra nire esku artean egongo zela?

Wasianski: (Iribarrez nahiz eta gogoz kontra). Kanten sudurra;

Peter: Odoljarioa ari da eteten. Eman diodan hemostatikoa Moskuko Unibertsitatean erabiltzen den azken aurrerapena dugu. Zer iruditzen zaizu?

Wasianski: Odola geratu da. Hemostatiko ona dirudi.

Peter: Irakaslea zaintzen dabilen taldean neroni geratzea ere gustukoa izango nuke.

Wasianski: Oso ideia ona. Ongi etorria izan zaitez gure etxera;
(Bostekoa luzatzen diote elkarri eta iluntasuna areagotuz doa).

1804ko OTSAILAREN 8a.
HERIOTZA BAINO 4 EGUN LEHENAGO.

(Sukaldean, agian. Horma zuriak eta argi asko. Klinika batean bezala. Kanten soina mahai gainean eta zuriz jantzita. Oso txikia da eta odola ari da hartzen. Peter – horrela deitzen segituko dugu nahiz eta beste izen bat duen badakigun- daukagu eragiketa kirurgikoaren arduraduna).

Peter: (Bere kolkorako). Normaltzen ari da.

Wasianski: Pozten naiz: normaltzen baina

Peter: Zorabiatu al zara? Lipotiamirik?

Wasianski: (Pentsakor). Lipo... zer'? Ah; Barkatu. Nahastuta nago. Agian odol gehiegi ari da galtzen?

Peter: (Bere baitarako). Ez arduratu horrekin

Wasianski: Hamabost zentimetroekin nahikoa izango delakoan nago. Ez dut uste horrenbeste galdu duenik.

Peter: Aski da.

Wasianski. : (Hasperena eginez eta besoa eskainiaz). Ez duzu gehiago behar?)

Peter: Ez, ez, nahikoa da. Eta pultsua?

Teresa: Aldakorra da eta hotz beroa....(neurgailuari begira) ez da posible.

Peter: Esan, arren, ez geratu horrela.

Teresa: Hotz dago,

Hanna: Egia da, (bekokia ukitzen dio) eta mahaspasa bezain lehorra gainera.

Wasianski: Irakasleak ez du inoiz izerdirik bota, inoiz ez.
Hanna: Hiltzen ari al da?

Peter.: (Seguritate osoz ezetz dio keinu batez). Ez al duzu ikusten bere aurpegia gorritzen hasia dagoela?

Hanna.: Bai, pittin bat agian.

(Begiratzeko okertzen da eta, nahi gabe edo bularra Peterren gainean jartzen du. Hanna konturatzen da eta distantzia hartzen du).

Hanna: Ah barkatu;

Peter: Ez, oso gustura nengoen horrela.

(Barre egiten dute baina bere neurrian, egoera honetan bi mundu nahasten baitira: heriotza eta bizitza, antzerkian azaldu ohi diren moduan. Honetan begi bistan geratzen da bizitzaren alaitasuna eta hildakoen akabera iluna).

Hanna: Piskat gorritu da. Benetan. Ez da lehen bezain zuria azaltzen eta arnasa hartzen ari dela ematen du.

Teresa: (Serioegia). Nire aburuz nabarmenegia da. Azkena izan liteke.

Peter: Ez da azkena. Utz dezagun lasaitzen. (Leihoak istera doa eta gela gero eta ilunago geratzen da. Wasianski jazten da eta bere itxura luteranoa berreskuratzen du.

Teresak Kant begiratzen du zuzen zuzenean Kantengana).

Hanna: Bai, esan?

(Aurpegia alai eta argia du.)

Peter: Egingo dizut.... edo hikaz hitzegingo dinagu?.

Hanna: Bueno, gazteen artean hika ongi zegok.... Ez al duk horrela? “Ahate gorrian” gazteok honela mintzatzen gaituk.

Peter: (Ahapeka eta Wasianskiri zein Teresari begira). Gauza batez seguru nago.

Hanna: (Bera ere ahapeka). Zertaz?...

Peter: Antzezpen honen idazleak...

Hanna: (Zur eta lur). Ah; baina antzezten al gaituk?

Peter: Begibistakoa da. Inguruari begiratzerik besterik ez zegoen.

Hanna:. (Inguruari so egiten dio eta indiferentziaren keinua egiten du). Baina, hori berdin duk.

Peter: Gauza da zerbait proposatu nahi nizula. Bueno, (ez omen daki nola esan) Antzezpenetan pertsonaiek traba egiten diotenean egileari honek lorategira edo bidali ohi ditu. Antzerki arruntean hori horrela suertatzen da behintzat.

Hanna: (Tristuraz). Antzerki arruntean diok?

Peter: (Baikor) Zer egingo diogu ba?

Hanna: (Pozik bezain alai). Zer? Lorategira joango al gaituk?

Peter: (Hanna erakutsitako jarrerarekin kontent) Horixe bera ari nintzen ni pentsatzen, izan ere bi txori tiro bakar batez jotzea ere...

Hanna: Ez diat gustuko txoriak hiltzearena eta are gutxiago bi, tiro bakar batez. Tiro bakarra gehiegi duk eta.

Peter: (Minduta). Metafora bat zela pentsa zenezakeen.
Hanna: Metaporik? Metakorarik? Zer diok hik?

Peter: Lorategin ibiltzea polita izango da; Eta gainera jaun honen arazoari irtenbidea emango diogu. (Mahaitik kaierra hartzen du). Begira zer dagoen idatzita hemen :” Peter eta Hanna desagertu behar dira Wasianskik eta

Teresa Kaufmannek bizitzaz eta heriotzaz hitz egin dezaten. Wasianski: Zerbaitetaz ari zara pentsatzen?

Teresa: Pentsatzen?" eta abar

Hanna: Ni ari ninduan pentsatzen ba...

Peter: Zertan? Ez dut uste hori aurreikusita dagoenik.

Hanna: Berdin zaidak.

Peter: (Harrituta). Zure kasa ari zara pentsatzen.

Hanna: Bai.

Peter: (Beldurtuta, idazleak entzungo liokeelakoan). Zertaz ari zara pentsatzen.? Esaidazu, mesedez.

Hanna: Osabaz ari nindoan .

Peter: (Lasaituta). Ah; baina hori antzerki honi dagokio.

Hanna: Eta horrela izango ez balitz?... Zer?...

Peter: Hariarekn bat dator beraz. Jarraitu, jarraitu.

Hanna: (Kanti begira. Teresa eta Wasianski mugitu gabe daude beraientzat antzespina bukatuta balitz bezala). Emmanuele osabaren urtemugaz ari nindoan pentsatzen. Apirilan duk.

Peter: (Kanten bizitza goitikbehera ezagutzen duena).
Apirilaren hogeita bian, hain justu.

Hanna: Ez duk iritsiko

Peter: Behar bada , bai.

Hanna: Hurrengo udaberrian, dena lorez beteta egongo denean, Emmanuel osaba ez duk gure mundu honetan egongo.

(Kantek entzun eta aditu duela ematen du baina beraiek ez dira konturatzen Hanna negarrez ari delako).

Peter: Ze tuntuna zaren; Negarrez ari zara.

Hanna: Zaharrek pena ematen zidatek Ahhhh;

Peter: Zer gertatzen zaizu?

Hanna: Emmnuel osabak zerbait esan dik

Peter: Hala dirudi.

(Begiratzen dute eta Kanten espainiak mugitzen ari direla ohartzen dira. Nekez entzuten da honelakoa: “Ospatu orain”).

Hanna: Entzun nauk. Zuzen begiratzen nauk.

Peter: Ez, ez dut uste orain inora begiratzen duenik.

Hanna: Seguru negok urtemugarena aditu duela eta hitz egin nahi duela;

Peter: Asmatzen ari zara. Goazen.

Hanna: Nora?

Peter: (Eskutik heltzen dio eta beraganatzen du). Esaten genuena ba, lorategira.

Hanna: (Pozik Peterren besarkadarekin galdetzen dio). Idazleagatik?

Peter: Bai, zera;

(Biek barre egiten irten dira. Une hartan Wasianski eta Teresa hasten dira mugitzen eta aurreko geldiuonetik ateratzen. Wasianskik aurretik Peterrek irakurritako esaldi berbera irakurtzen du.).

Wasianski: (Geldiunearen ondoren). Zerbiatetaz pentsatzen ari al zara?

Teresa: (Esnatzen bezala) Pentsatzen? Ez, bere begiradari begira nengoen. Irakaslearen arima bidaiatzen ari da eta, nik ikusten dudanaren arabera behintzat, toki beldurgarrietan ari da. Zuk ez duzu hori ikusten?

Wasianski: Aurpegi lasaia ikusten dut.

Teresa: (Mezprezuz). Lasai diozu;

(Kant alboratzen du eta hasten da tea zerbitzatzen. Wasianski katilua luzatzen dio eta berak onartzen du.

Wasianski: Hau etxe alaia zen. (Eseri da). Mahai honetara gonbidatu, lagun eta adiskide asko biltzen ziren... Erlojua bezala zebilen gure etxea; Baina pozez beterik dabilen erlojuaren antzera... Nikolavius liburu saltzailea gogoan dut... Von Hippel kontseilaria... Ez dituzu ezagutzen bere antzezlanak? Hantxe zeuden ere bere lagun ingelesak... Green... Motherby... irakasleak haiekin hitz egiten zuen, izan ere Kantek beti defendatu du kolonizatuek oldartzeko duten eskubidea. Denari begirune handiz, noski... Ba al dakizu Kantek hika pertsona batekin bakarrik erabiltzen zuela? Trummer doktoreari zuzentzen zitzaion hitanoz, eta hori Unibertsitateko ikaskidea izan zelako. Etxe honetan begirunea zen gizalegea. Begirunea eta gela guztietako ordenua... Inoiz edo, txantxaren bat egiten nion gure maisuari... Badakizu zer egiten nion? Bere mahian zegoen luma edo tintontzia tokiz aldatzen nizkion eta, ene jainkoa, gure maisua lanerako esertzen zenean, hori argitu arte ez zekien zer egin. Birritan egin nion, bi aldiz bakarrik umekeria hura, eta horren harriturik ikusi nuen ez nuela berriro ere errepikatu. Gauza bakoitza bere tokian jartzen zuenean, berriz, hasperena hartzen zuen eta lasaitzen zen. Arratsaldean bere morroi zaharrari errieta egiten zion... Ay; gizon handien gorabeherak;

Teresa: Harrigarria da zentzumeen itzalketa

Wasianski: (Adierazpen honekin ukitua). Egia da.

Teresa: Eta sudurrari buruz?

Wasianski: Zer diozu sudurrari buruz?

Teresa: Odol jarioaz ari naiz. Bere sudurraren protesta dirudi.

Wasianski: Sudurra ez du inoiz gustukoa izan.

Teresa: Bere sudurra?

Wasianski: Ez, sudurra orokorrean. Oh ez; usaimena esan nahi dut.

Teresa: Zer gertatzen zaio usaimenarekin?

Wasianski: Beti desegokitzat jo izan du irakasleak zentzubide hori. (Teresak keinua egiten du). Ah bai; Arrazoia duzu, txorakeria ematen badu ere, inguruan dagoen guztia usaintzeko derrigorturik gaude, beraren mezuak eskuratu behar ditugu ezinbestean, “volens, nolens” zioen irakasleak, hau da nahitanahiez beti duzu ondoan usairik, eta ez beti usain onik. Kant irakaslea ez zen inoiz azaldu zentzuen alde. (Pentsakor).

Teresa: Zer zentzutuan diozu hori?.

Wasianski: Denetan.

Teresa: Ez, alegia, zer iruditzen zaio gaizki irakasleari Zentzumeen funtzionamenduan?

Wasianski: Zentzabideen banaketa ez zitzaion oso ondo oinarriturik iruditzen. Inoiz, ardo piska bat edan ondoren, berak hotsak ikustaraztea posible izan zitekeela zioen. Iragakizun ausarta da, gero. Begira, mugitzen ari dela dirudi.

Teresa: Bai, non dago sendagile gaztea?

Wasianski: Olinpiarekin dago, barkatu, Hannarekin

Teresa: (Leihotik begira). Arrazoia duzu. Hor daude.

Wasianski: Non esaten duzu?

Teresa: Lorategian

Wasianski: Lagunduko didazu? Eragiozu eskutokiari. Arrenj.

(Teresak leihoa uzten du eta Wasianskiengana doa berak eskatutakoa egitera. Eskutokiari heldu eta eragin. Mahai kirurgikoan dago Kant eserita eta lotuta. Orain Kanten besoa hasten da mugitzen. Biek harriduraz begiratzen dute. Azkenean besoa soluarekin paraleloan geratzen da, gero hasten da ezkerretik eskubira mugitzen —edo alderantziz según non dagoen bera- eta mugimendu honen aurrean ere zur eta lur daude Teresa eta Wasianski besoaren mugimendua gelditu arte. Ukabila, itxita zegoena hasten da irekitzen eta erakusleak leihoa seinalatzen du. Mezua da, Wasianski eta Teresa zai daude. Teresak leihora hurbilduko du. Kant kanpora begira geratzen da. Wasianski eta Teresaren aurrean baiezka dabil.). Hori zen, hori. Leihotik begiratu nahi zuen. Betidanik gustatu

zaio asko leihotik begiratzea. Gehienetan Löbenitch dorrea ilunabarrean... Egunen batean, maisuaren biografia idaztean hori guztia kontatuko dut... Auzokoaren zuhaitzak, horren ziren handiak, irakasleak ezin zuela bere dorre maitatua ikusi (haur ipuina azaltzen den moduan ari da adierazten orain) baina bizilaguna jabetu zenean irakaslearen nahi ukatu horretaz, ba al dakizue zer gertatu zen?

Teresa: Auzokoak bere zuhaitzak moztu zituela.

Wasianski: Horixe; Filosofiaren aldeko hautua izan zen hura.

Teresa: Wasianski irakaslea;

Wasianski: Zer gertatzen da?

Teresa: Hizketan ari dela dirudi.

Wasianski: (Oso gertutik begiratzen). Egia da.

Teresa: Zer esaten du?

Wasianski: Egon. (Itzultzeko tenorean berak ere ezpainiak mugitzen ditu). Ah, bai, bai; “Enarak... begiratzen ditudanean...” bai, jarraitu irakasle, jarraitu; “ Hemen begiratzen ditudanean nire arrazoia isiltasunaren pare geratzen da. Belaunikatzea eta otoitz egitea besterik ez zait geratzen...” (Hasten da mugitzen aulkitik jaitsi nahi izan balu bezala). Ez mugitu, lasaitu. Kant jauna kontuz; eroriko zarela; mesedez, mesedez; (Kantek negar egingo duela ematen du eta ezpainiak mugitzen ditu.

Wasianskik itzultzen du).” Behin batean...behin batean... behin batean.... zeruan...nire eskuan eduki nuen enara baten begiak ikusi nituen. Behin batean...” (Kantek, ume bat bezala negar egiten du). Jainkoarren... lasaitu mesedez...

(Kant zotinka dago).

Teresa: Nik lasaitu dezaket. Utzi niri.

(Magnetismoa erabiltzen du).

Wasianski: (Ahoa bete hortz). Zer da hau? Magnetismoa? (Horixe bera. Teresak lasaitzen du eta Kant baretzen da eta irribarrez geratu. Bapatean Teresa ezagutzen duela ematen du). Kaufmann anderea naiz. Zure laguna.

Kant: Eskerrik asko, eskerrik asko.

Teresa: Zerbait nahi duzu?

Kant: Bai, bai.

Teresa: Zer da ba?

Kant: (Ahots mehea baina argi batez). O s p a t z e a aaaa lehenbaitlehen.

Teresa: (Wasianskiri). Entzun duzu?

Wasianski: Bai, lehenbaitlehen ospatzea esan du.

Teresa: Jakina, baina, ospatzea zer?

Kant: A p i r i l a r e n u r t e m u g a o s p a t u N i e z
n a i z a p i r i l a r a i r i t s i k o . . . O r a i n n a h i d u t
u r t e m u g a o s p a t z e a .

Wasianski: Bere urtemugaz ari da, baina hemen ez dugu horretaz hitz egin.

Kant: (Malenkoliaz). U r t e m u g a r e n b a z k a r i
t x i k i b a t h i l b a i n o l e h e n a g o n a h i d u t .

Wasianski: Horrela egingo dugu.

Kant: Ehun eta hirurogeitalau... eta ehun eta hirurogeitabost orriak....

(Wasianski eta Teresa elkarri begiratzen diote. Ez dute ezer ulertzen)

Teresa: Liburu bati buruz ari da (Kanti) Zer liburu? (Kantek ezpainiak mugitzen ditu). Zure txanda da, Wasianski. Zer esaten du orain?

Wasianski: (Kanten ezpainiak irakurtzen). “Gulliverren bidaiia...”. Itxoin pixka bat (Irten da korrika eta liburu bat eskuan itzultzen da. Teresari): Hemen dago, Gulliverren bidaiak, orriak...

Teresa: (Oso segurua). Utzi niri (Liburua kentzen dio, aipua aurkitu eta irribarrez dio) noski struldbrugssarrak; (Kanti) irakurri, irakurri (Kantek baietz dio indarge...)

“struldbrugsarren ikusmena herriko guztien bizitzaren nahiaz arintzeko baliagarri suertatu zen”...

Wasianski: Nik, nerabea nintzela, irakurri nuen liburu hori. Gulliverrek itsas hondoratze bat zela medio struldbrusarrak aurkitu zituen. Oso zorigabeak ziren hilezkorrak zirelako. Jonathan Swiften eleberria da. Irlandar zoro hura;

Teresa: Struldbrugsarrek... (Kanten belarriari) “Hilkorrek bezala bizitzen ziren hogeitahamar urte bete arte...gero malenkolian murgiltzen joaten ziren pittinka, laurogei urte bete arte...”segituko dut? Segituko dut, irakasle? (Kanten buruak baietz dio. Teresak hurrengo orrira pasatzen da irakurtzeko: “Zoriontsuenak ziren oroimena erabat galdu zutenak zeren haurrak bezala bizitzen ziren, eta jendeak erruki zien”...

Wasianski: Aski da, ez al duzu ikusten lotan dagoela?

Teresa: Egia da. (Liburua usten du).

Wasianski: Zerua lainotzen ari du.

Teresa: :Gela atontzera noa. Goizean botaka egin du eta pixa ere joan zaio.

(Esaldia oso arrunta izan arren, badu Wasianskirentzat esan nahi berezia, eta Teresari begiratzen dio. Une bat besterik ez da baina bion artean lotura bitxia sortu dela antzematen da. Wasiasnkik galdetzen du)

Wasianski: Beraz, piza egin du.

Teresa: Bai,

(Isilunea)

Wasianski: Zein zara zu Teresa? (Bere izena aditzerakoan Teresa zutitu egiten da). Zer egiten duzu hemen?

Teresa: Zer nahi duzu zuk egitea?

Wasianski: Ez dakit.

Teresa: Nire lehenengo soldata kobratzea espero dut jantzi berriak erosteko, adibidez.

Wasianski: Hori da guztia?

Teresa: Jakinmina ere badut eta....

Wasianski: Eta?

Teresa: Zahartzaroaren misterioa argitzen laguntzea, heriotzaz ere jabetzea eta praktikak egitea. Egia da, era berean, Kant irakasleak nire maisua zenaren izpiritua zauritu zuela bere garaian. Gogoratzen zara Kantek botatako honetaz? “Estokolmon bizi den Svedenborg jaunak ez du prestakuntzarik ez eta argitasunik, dirua bakarrik. Berari kasu eginez igerleen artean burua litzateke, baina artaburu puztua besterik ez da” Zer iruditzen zaizu?

Wasianski: Beraz, gorroto duzu?

Teresa: (Emozioz beterik). Nola litzateke hori posible.? Kant irakaslea begirutzen dudanean erruki diot.

Wasianski: (Eskua lepoan jartzen dio eta Teresak onartzen du). Eskerrik asko , Teresa.

Teresa: (Berriro hotz). Biharko zerbait berezirik?

Wasianski: (Esnatu berri baten antzera). Berezia den zerbait, jakina. (Kaierra hartu eta irakurtzen du). Bai, bidezkoa da. Irakasleak hiriko jende prinzipalari harrera egingo dio. Etzi, otsailaren hamaikan, bere urte mugaren ordezkoko jaia antolatuko dugu, hori baita bere nahia. Hilik ez dauden adiskideak gonbidatuko ditugu.

(Iluntzen da eta ikusten den bakarra da Emmanuel Kanten irudia. Lotan edo)...

1804 OTSAILAK HERIOTZA BAINO 24 ORDU LEHENAGO

(Egongelan. Giroa alaitu nahi izan dute loreak jarritz. Peter eta Wasianski hizketan ari dira).

Wasianski: Ziztatu al diozu?

Peter: Bai. Ongi hartu du. Berpizteko farmakoa da eta bi orduko ondorioak ditu.

Wasianski: Nahikoa izango da

Peter: Hala uste dut.

Wasianski: Nork esango luke, bada;

Peter: Zer diozu?

Wasianski: Moskuko medikuntza horren aurreratuta egotea, alegia....

Peter: Kimikan goren maila dugu eta farmakopean aski ona

Wasianski: Irakaslea egongelaraino oinez iristea posible izatea ere; atzo bertan ezinezkoa zirudien.

Peter: Hannak lagundu du, egia da

Wasianski: (Korbata estutzen bere jaka soinean jartzeko Peterren laguntzaren zain geratzen den bitartean). Zer egiten dute orain?

Peter: (Iluntasunera begira – Eszena tokia argituko da Wasianski sartzerakoan) Zer arraro...Ez dakit zer gertatzen den...Denak zutik daude, mahai inguruan...Irakasleari begira daudela ematen du.

Wasianski: Mesedez, (besoak zabaltzen ditu eta Peterrek jaka jartzen laguntzen dio). Banoa, esaiezu Kafmann andereari eta Hannatxoari hastera goazela. Horren zara atsegina Gogol doktorea; Guregana zerutik etorri zarela dirudi;

Peter: (Erromantikoki). Gure irakasle ondoan egon ahal izana zerua da niretzat;

(Wasianski egongelara doa eta Peter desagertzen da. Dena argizatzen da eta eguraldia berriro ere gaiztotu egin duela ematen du, nahiz eta udaberria berriki etorri den. Zerua odeitsu dago eta gelan gaua etorri dela ematen du. Irudiek mamuak dirudite. Wasianskik bere irribarrarekin giroa alaitu nahi du).

Wasianski: Egunon jaunak. Eser zaitezte, arren. Ah; badakit. Baina irakaslea zai daukazue, zuek eseri bitartean bera ez baita eseriko. Beraz, mesedez...

(Gonbidatuak esertzen doaz eta denak horrela daudenean Kant bera eseriko da. Orduan dena begiratzen du aurpegi lasai eta irribartsu batez).

Kant: (Inola ere pentsa zitekeen ahotsa argiaz). Lagun maiteak, asko poztu nau zuen zorionak. Nahi izan dut zuek denak bildu gaur, nahiz eta nire 80.garren urteak betetzeko oraindik bi hilabete falta diren.

(Esandakoa esan ondoren hunkituta eta isilik geratzen da).

Lehenengo gonbidatua: Kant irakaslea, zer nolako gauzak esaten dituzun; Apirilaren 22an orain bezain ederki egongo zara zu.

Kant: Apirilan? Ene jainkoa, apirilan; (Ezetz dio, buruz). Neronek ere ez dut apirila arte heldu nahi, lagunok. Nire burua... galduta, galduta...Loak hartu ezinik ibilitako gauak gogoan ditut...Manuele, Manuelatxoa zen gure ama (Begiak bustirik). Herioaren erresuma beterik dago. Hor zaudete oraindik? Ez dut kasik ikusten. Itsua naiz.

Wasianski: (Abegikor). Itxoin irakasle; Argiak piztuko ditugu. Zerua ilun dago. Gaua ematen du. (Kandelak hasten da pizten eta Kaufmann anderea eta Hanna sartzen dira jakiekin). Oso ongi, oso ongi. Hannatxo, edariak banatu eta zuk, Kaufmann anderea, kandela piztu, mesedez.

(Eszenatokia, kandela guztiarekin, itxura izugarria du)

Kant: (Wasianskik esandakoa ez du aditu eta isilik dago. Asaldatu egiten da, bakarrik egongo balitz bezala , eta errepikatzen du aurretik galdetutakoa). Hor zaudete oraindik? (Gonbidatuak hitz egin eta keinuka ari dira berarekin eta Hannak ardoa zerbitzatzen du. Kaufmann andereak janaria banatzen du. Wasianski, Kant ondoan

eseri da eta haurra balitz bezala laguntzen saiatzen da. Haragi pusketa bat mozten dio eta jateko eman. Kantek jakia nabarmentzerakoan, nazka azaltzen du. Plater gainean oka egiten du eta gonbidatuek ez ikustearena egiten dute. Edan, hitz egin, eztula egin eta abar. Kantek ardo piska bat edatea lortzen du eta zerbait adierazi nahi izaten duenean gonbidatu guztiak isilik geratzen dira. Peter etorri da eta Kanten aulkiaren atzean geratu. Behar denean atenditzeko edo... Teresa eta Hanna, bakoitza bere eran, bata zuhur eta bestea alai, ondoan daude. Kantek dio): Agur, agur;

(Begirada guztiak gurutzatzen dira harriduraz).

Lehenengo gonbidatua: (Wasianskiri). Kant irakasleak joan gaitezela nahi al du?

Wasianski: (Kanti begira). Ez jaunak, agurtu nahi zaituzte, besterik ez.

Kant: Ai, nire morroi zaharra...Begira nola nagoen, erabat deseginda... eta zutitzeko ziztatu behar izan didate. (Denak bere hitzen zai geratzen dira nolabaiteko azken ikasgaiaren aurrean baleude bezala). Nire arazoa... Kopenhageko katuak bezala...Argi indarraren ondorioa da. Nire uste apalean... Kopenhageko katuen artean aurkitzen den heriotz tasa altuaren arrazoa hango atmosferan dagoen elektrizitate haundia da...Gauza bera dugu gertatzen den guztiaren oinarritzat...Nire zahartzaroa horrela ulertu daiteke...Nire buru astuna... Azken hauxe, batipat.

Bigarren gonbidatua: (Animatu nahian). Ah; baina elkartu ginen azken aldian baino askoz meyoratuagoa zaude;

Hirugarren gonbidatua: Horixe bera. Itxura behintzat ederra duzu.

Laugarren gonbidatua: Hori da. Zuk denak lurperatuko gaituzu, irakale.

(Kantek irribarre egiten du).

Kant: Ongi, ongi, ene lagunak...Greziar filosofoak arrazoia zuen honakoa zioenean: lastima haundia da bizitzen ikasi dugunean hil beharra; Je, je, je...Honek burura dakarkit istorio bat, nere libururen batean idatzita dagoena, hain zuzen. Gaixo bat gero eta okerrago zegoenean jende guztiak gero eta hobeto zegoela esaten zion eta, egunen batean, berak lagunei honako hau esan zien: bai, bai, hobekuntzak hilko nau; Istorioa nire liburuetan dago, badakizue, gaixo bat gaizki zegoela baina denek hobeto zegoela ziotenean berak ihardetsi zuela: bai, horrenbeste hobekuntzarekin hilko naiz ere; ez dakit zuek, lagunok, inoiz adierazi dudan istorioa ezagutzen duzen. Hau da, eri bat, eritasun latzak jota zegoela baina bere ingurukoek ongi zegoela esaten ziotela eta berak, berriz, horren ongi aurkitzen nauzue? Hori da nire liburu batean agertzen den istorioa... gaixo bat, oso gaizki zegoela...

(Egoera penagarria da oso. Wasianskik, gainerakoei begiratu ostean, moztea erabakitzen du).

Wasianski: Irakasle, irakasle...

Kant: Oh; zu zara aspalditik joan zen nire morroi zaharra;
Ze poza zu ikustea; Gaua al da? Atzo al da?

Hilabete motzena dugu guk otsaila
Nahiz ta nire gorputza dagoen erdi hila
Soina makala eta burua abila
Banoa oraingo hontan herioren bila

(Abesten du “Errenteriako bertsoak doinuarekin” –
Zabaleta Anaiek egindakoak).

1804ko OTSAILAREN 11TIK 12RA BITARTEKO GAUEAN

Garai honetan ospatu egin ohi dira Königsbergen ihauteriak. Giro honetan suertatuko da Emmanuel Kanten azken gaua. Bere azken amets gaiztoa, eman Königsbergo auzoak maskarez betetzen diren bitartean.

Izu filmetan erabiltzen den musikaren antzerakoa entzuten da Kanten irudia argiztatu ahala. Bisitari guztiak mozorraturik daude.

Wasianski: Ene jainkoa;

Teresa: Zer gertatzen da?

Wasianski: Bere bizitza osoan lehen aldiz arropa kendu du gainetik

Teresa: Eta?

Wasianski: (Zurbilduta) Herioaren marka da hori.

(Barreak entzuten dira, eta hostotzak ere bai. Kant bere heriotza jarreran dago. Kanpoan ekaitza ari du).

1804ko OTSAILAREN 12AN. HERIOTZAREN EGUNA

(Goiza da. Emmanuel Kanten lo gelan. Lotan dagoela ematen du. Hanna eta Peter ondoan daude. Hannak nazka keinuak egiten ditu).

Peter: Zer gertatzen zaizu?

Hanna: (Nahigabetua). Usaina da...Kiratsa... (Ok egingo duela ematen du).

Peter: Hotz haundiegia egiten du lehioak irekitzeko.

Hanna: Epeltzen ari du.

Peter: Hara; elurra egingo du

Hanna: Otsailean ez du elurrik egiten.

Peter: Inoiz egin du, ordea.

Hanna: Zer egiten duzu orain?.

Peter: (Zerbait ari da botatzen). Indiako kolonia da. Zer moduz?

Hanna: (Usainduz). Ez dakit, usteltzen ari dela dirudi.

Peter: Mandiriak aldatu behar genizkioke. Piza egin du gainean.

Hanna: Nazka ematen dit, Jaungoikoak barka nazala.

Peter: Nik egingo dut. Kaufmann andereak ez du egin nahi. Ekarri maindiri garbiak.

Hanna: Zuk bakarrik egingo al duzu? (Sudurra estaltzen)

Peter: Mugitzeak beldurra ematen dit, baina saituko naiz. (Hanna badoala ematen du. Peter gaixoari begira dago). Ez, utzi.

Hanna: Berehala ekarriko ditut.

Peter: (Burua astintzen). Utzi, utzi. Hobeto Wasianski doktoareari eta Kaufmann andereari abisatu.

Hanna: (Izuaz). Hiltzen ari da?. (Begiak oso irekita). Zer da izerdi hori?

Peter: Heriotzaren izerdia. Gizon lehorra zen bera. Hau da izerdietan dagoen lehenengo eta...azken aldia.

Hanna: (Negarrez). Ez dago deretxorik; Horrela hiltzea ere; Ezin dut sinestu ere egin; Ez da posible, ezin liteke; Ni hiltzen naizenean non egongo naiz? Emmanuel osaba non egongo da bihar?

Peter: Ur piskat emango diot zuk gainerakoei abisatzen diezun bitartean. Goazen, azkar.

(Hanna ziztu bizian irten da korrika. Peterrek ura eman nahi dio Kanti. Honek ahoa erabat itxita du eta hura bere gainean erortzen da. Une honetan, ezertaz ohartu gabe, Teresa Kaufmann agertzen da eta horrela dio :)

Teresa: Nola doa gure gizona?

Peter: Azkenetan.

Teresa: Heriotza?

Peter: Bai, heriotza.

Teresa: Egoera berria da: heriotza. Kant irakaslearen egoera berria, hain zuzen.

Peter: Egoera berria? Bizitzaz haratago dena ez dut ulertzen.

Teresa: Berak hil ondoren oraindik etxe honetan dagoela pentsatuko du eta ez da jabetuko hilda dagoenik.

Peter: Bai bitxia

Teresa: Hiltzen denak bere jabegoa gordetzen du... eta esnatzen denean eguneroko beharrei ekiten saiatzen da zerraldo izango ez balitz bezala.

Peter: Maisu gizarajoa. Zer nahi izango du idatzi bihar? Nola izango da etxe hau berarentzat?

Teresa: Hasieran dena berdin izango da, baina pittinka gelak aldatzen joango dira eta altzairuak lausotuko dira mamuak bihurtu arte...azkenean irakaslea beste mundu batean egokitzen bukatuko da.

Peter: Nik bere....egarria arindu nahi nuen orain hiltzen ari denean, benetan hil, gutxienez niretzat. Ah; maisua, maisua;

(Berrito ur basoa hurbildu baina Kantek ezetz dio).

Kant: Aski da; aski da;

(Berrito ere arropak gainetik kentzen ditu . Hiltzen ari da. Peter beldurtzen da eta ohiuka egiten du:)

Peter: Wasianski irakaslea (Kantek mintzatu nahi duela dirudi. Peter hurbiltzen zaio, adi-adi). Esaidazu maisua. Ene jainkoa, ez izan gurekin horren krudela; Emmanuel Kant handiak ez luke inoiz hil behar. Zure miraria behar dugu; (Kanten ezpainiak hasten dira mugitzen) Zer dio? Zer dio? (Hurbildu ondoren hasten da ozenki esaten Kantek, nonbait, marmarkatzen duena). “Bizitza... ehuna da... Erotasunaren hariak ehunduriko ehuna...” Itxoin maisua, izerditan zaude. Desidratatzen ari zara. Oso ona dago. Edan ezazu hau...Ura ardoa eta azukrearekin nahasturikoa duzu.

(Kantek onartzen du. Edan ondoren gustura dagoela dirudi. Orain bere azken hitzak botako ditu:)

Kant: Oso ona dago.

(Hiltzen da. Egongelako erlojuak hamaikak jotzen ditu. Dena iluntzen da eta leihotik elurra ari duela ikusten da. Wasianski eta Hanna heldu berri dira.).

1804an HERIOTZA ONDORENGO ORDU BATZUK PASA ONDOREN

(Kanten gorpua gelan dago aulkian eserita. Kanpoan euria ari du. Kaufmann andereak hilea mozten dio zerraldoari – oraingo honetan panpina “hiperrealista.” izan daitekeena. Hannak laguntzen du. Jantzi eta zapatak jartzen dizkiote. Peterrek aurpegiaren gainean igeltso zuriz egindako maskara ezartzen dio. Ileordea ere jarriko diote. Wasianski sartzen da Kanten hiru puntako kapelarekin)

Wasianski: Kapela...(buruan jarri nahi dio). Kaufmann anderea, kandelak piztu mesedez (Teresak egiten du. Peterri eta Hannari) Mahaia zabalduko al dugu bisitariarentzat? Izan ere, irakaslearen miresleak ziren asko eta asko etorriko dira hona hurrengo orduetan. Hiri osoa penaturik dago (Peterrek esku Eragingailuari heltzen dio eta zerraldoa zutitzen du. Horrela ikustean Hannak negar egiten du).

Hanna: Horrela ez, horrela ez. Eserita hobeto.... Ez du eta horren hilik ematen. (Wasianskik ez daki zer esan. Peterrek kasu egiten dio Hannari eta lehen bezala uZten du. Kant eserita geratzen da berriro ere. Peterrek begirunez begiratzen du irakaslea.

Peter: Ez da ohikoa zerraldo batentzat, baina hobeto ematen du. Aurpegia harrizkoa dirudi. Hanna, zergatik ez duzu pizkat koloreztatzen? Urtemuga egunean oso ondo geratu zen.

Hanna: Ez ahaztu orain hilik dagoela.

Peter: Nork ahantz dezake hori?

(Kandelak piztuta daude. Wasianski, belaunikatu ondoren, hasten da otoitzen).

Hoffmann: Erlojuek hamaikak jo zituzten... Königsbergen. Batzuk lehenago eta besteak geroago, ohi denez. Emmanuel Kant hiritar txit agurgarria hil berria zen. Zenbaitek kontatu duenaren arabera, otsailaren goiz hotza zen, elurrak zuritua... Azkenean drama bukatu egiten da.

Offenbachen “Hoffmannen ipuiak” hasierako doinua hasten da entzuten. Pontxearen garra desagertuz doa eta maindiri txuri batez estalitako zerbait ikusten da. Wasianskik, beltzez jantzita, estalia kenduko dio eta Kanten irudia agertuko da, bururik gabe. Peterrek du burua. Aurretik egindako maskarari esker. Bien artean burua ezarriko diote estatuari eta Kanten lagunak hasiko dira aurretik pasatzen. Hannak dantzatza egiten du Kaufmann andereak bere biolinari eragiten dion bitartean.

AMAIERA